

emaús

GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL

ekimuin dosierrak

Genero eta Aniztasun sexu-afektiboa




ekimuin

unibertsitate eredu eraldatzaileak eraikitzen
construyendo modelos de universidad transformadora



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Aitortza – ez merkataritzarako – partekatu baimen beraren arabera 3.0 material hau libre kopiatzeko. Banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, beti ere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarritutako beste obra berri bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratua baina ezin da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es>

LAN TALDEA

Koordinazioa:

Alberto Gastón

Amaia Ibarondo

Lan-taldea:

Julián Márquez Morin

Imanol Legarda Díaz de Aguado

Maria Sarasola

Nahikari Diosdado Bua

María Viadero Acha (Mugarik Gabe)

Itzulpena:

Idoia Larrañaga

Diseinua eta maketazioa:

Imanol Legarda Díaz-Aguado


Argitalpena doan deskargatzeko

www.emaus.com

<https://issuu.com/grupoemausfundacionsocial>

Babesleak:





ekimuin

unibertsitate eredu eraldatzaileak eraikitzen
construyendo modelos de universidad transformadora

SARRERA

Ekimuin prozesuaren bigarren fasearen esparruan Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako (EpTS) lau dosierreko multzo hau aurkezten dugu. Dosier hauek erantzuten dute jarduerako ardatz nagusiei, estrategia politiko-pedagogiko bat eraiki nahi dutenak unibertsitate eraldatzaile eredu batera bideratzeko, lurraldeari errotuta dagoen unibertsitate bat izatearen helburua lortzeko, gizartearekin eta gizartearentzat pentsatzeko gaitasuna duena.

Gai hauek aukeratzea Ekimuin lehenengo fasearen ondorio logikoa da, bertan ardatz hauek identifikatu ziren, unibertsitate-ekosistema eta gizarte erakundearen artean sortutako prozesu parte-hartzaile prozesuari esker.

Modu honetan, hurrengo dosierrek eremu honetako gai orokorrak lantzen dituzte: Komunikazio Eraldatzailea, Tokian Tokikoa-Globala ikuspegia, Sozial mailan Arduratsua den Ikerketa eta Genero Aniztasuna, Ekimuin prozesuaren gauzatu ziren ikerketa eta ikaskuntzetan oinarrituz garatu direnak. Aurkezten ditugun dokumentuetan jarraitzen den argumentu eta egitura lerroak unibertsitate sistemara ekarpen handiago bat lortu nahi du, egun landu ezin duen gizarte konplexutasun horretan.


Dosier hau elaboratzeko jarraitu den metodologia gradu / master amaierako lanetatik abiatzen da, gizarte eraldaketarako tresna bezala. Hori horrela, unibertsitate eremuan sexu aniztasunaren gaineko eztabaida talde baten ko-antolaketa kontuan hartzen duen master amaierako lan baten elaborazioan kolaboratu dugu, bertan sexu eta genero aniztasuna (SGA) gaietan aritzen diren eta genero berdintasuneko adituek parte hartu zuten, baita UPV/EHU eta gizarte erakundeetako ikasleak eta irakasleak ere. Horrez gain, sektorean erreferente diren erakunde feministen ekarpenak jaso ditugu, Mugarik Gabe erakundearen kasua bezala.

TESTUINGURATZEA

Azken urteetako mobilizazio masiboetatik abiatuz borroka feminista eta bere aldarrikapenak ikustera eman dira eskala globalean, hala ere emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortutako gai bat dela ustea dago. Askotan errepikatzen dira mota honetako esaldiak: “Eskubide berdintasuna bi aldeen aldetik lortu da”; “indarkeria gai marjinal bat da, non adikzioek, hezkuntza maila baxuak, (beste) kulturak, maila sozioekonomikoak, etab. fenomeno honen aurretik eta motibatzen dutenak dira”...

Genero berdintasunaren inguruan lortutako aurrerapenak ukatzea ez litzateke legezkoa, baina oraindik arraila nabarmena da ekonomia eta partaidetza aukeretan maila globalean, ahalduntze politikoan, osasun baldintzetan eta hezkuntza izatea, Nazio Batuak Emakumeak lan egiten dituen ardatzak aipatzearen; baita desberdinkeriaren ondorioak, diskriminazioa eta indarkeria fisikoak eta sinbolikoak. Soldata diskriminazioa banaketa desberdin baten arabera, amatasunagatik barneratuta dagoen lan-penalizazioa, pobreziaren feminizazioa, fiminizidio sistemikoak eta analfabetismoa bezalako fenomenoak argi adierazten dute oraindik “helmuga” ez dela lortu.

Berdintasuna lortu dela aintzat hartzeak oinarririk ez edukitzeaz gain, opresio modu bat da.



GENEROA ETA UNIBERTSITATEA

Kontuan hartzen badugu unibertsitate eremua ikerketa objektu bezala, “jakintzaren sehaska” bezala, nabaritasun ugari aurkitzen ditugu genero berdintasunaren inguruan praktika desberdin bat ematen dela adierazi nahi badugu, subjektu “ilustratuek” ez eraturako beste gizarte eremuekin konparatzen badugu.

Egoera honen gaiztakeria oinarritzen da, unibertsitate espazioa, ospe eta kalitateko erakunde bat bezala hartzen dela, giza eskubideen gotorleku, herrien garapen intelektual eta materialaren zerbitzura, ezagutzaren eta bakearen aurrerapenera, berdintasunera, genero, klase edo arraza, etab. gaiak garrantzia izan gabe.

Baina, adierazpen edo aldarrikapen hau praktikan zein neurritan jartzen da? Ikerketa askoren arabera, gizarteko beste zenbait eremutan gertatzen den bezala, unibertsitatean diskriminazio egoerak daude. Batzuetan ikusezinak sentsibilitategabeziaren ondorioz edo begiratzen duen pertsonak dituen sinesmenen ondorioz. Beste batzuetan, neutraltasunaren aura batez jantzia agertzen da. Nolanahi ere, emaitza berdina da: emakumeen inguruko diskriminazio egoerak maiztasun berdinarekin gertatzen dira. Beste ikerketa batzuek adierazten dute Unibertsitateetan indarkeria leunagoa ematen dela, normalizatua eta naturalizatua eguneroko diskurtso eta praktiketan, identifikatzea zailagoa bihurtuz.

Alderdi nabarmenetako bat, indarkeria fisikoa eta psikologikoaz gain, ikasleek okerreko estereotipo eta sinesmenak izaten jarraitzen dute genero indarkeria eta diskriminazioaren inguruan.



GENERO IKUSPEGIA

Baina, zer da genero ikuspegia? Genero ikuspegiak posizionamendu kritikoari egiten dio erreferentzia, gizartearen espazio publiko eta pribatu guztia euskarritzen duen hetero-arau ezartze patriarkalaren dimentsio ebaluatzaile/kritikoaren analisirako. Aipatzen den arau jartze honek euskarritzen du ere, garrantzia handitik txikira doazen balore eskala egituratu bat esleitu zaien generoaren arabera. Gizarte harremanak eta ingurunearekin erlazioatutako harremanak gizonari esleitzen zaizkion bezala, etxeko eremuarekin erlazioatutakoak emakumeari dagozkio.



Genero ikuspegia kategoría analitiko iraultzailea da, gizartean ezarritako egiturak hautsi nahi dituena, era berean, jolasaren arauak eta arau jartzearen patroiak berriz definitzea bilatzen du. Hori horrela, unibertsitatea egitura egokienean eraiki beharko litzateke, historian zehar erlijio, politika, filosofia, historiatik... eraikitako menderatzeko sistema hauei legezketasuna kentzeko.

Gai hau nahikoa ez balitz genero ikuspegia unibertsitateetan legezatzeko eta aldarrikatzeko, aukera aproposa da nabarmentzeko ezagutzaren eta ikerketaren eraikuntzaren ikuspegitik oinarritzko elementu bat dela, ondoren adierazten diren arrazoiak kontuan hartuta:

- Unibertsitatearen helburua ezagutza lortzea onartzen bada, nola lortuko litzateke parametro eta partzialetatik? Jakintza ofizialaren ortzi-mugak zabaltzea beharrezkoa da genero eta arraza isuririk gabe.
- Orain da gauzatzeko une egokia, Goi-mailako hezkuntzako Europar Espazioaren sorrerarekin eta Boloniako akordioetatik abiatuz, espazio hauek euskarritzen diren printzipioetako bat, hain zuzen ere, genero ikuspegia barneratzen dituzten ikerketak eta azterketa bultzatzea da.
- Hirugarren eta azken arrazoiak erantzuten dio, ikerketa hauek erakunde akademikoetan finkatzea oro har ez da nolabaiteko errekonozimendu akademikoko ekintza bat, ekarpen zientifiko garrantzitsu baten aprobetxamendua da mundu berdin eta solidario baten eraikuntzaren bidean.



Dosier hau elaboratzeko Mugarik Gabe fundazioak Hausnarketa Interseksionalitatea eta Feminismoak **Hausnarketa Interseksionalitatea eta Feminismoak** atala elaboratu du, Unibertsitateak Genero eta Aniztasun ikuspuntua lantzeko ikuspegia dela uste dugulako, bai GSA dagokionez bai ikuspegi interseksionalean jasotzen diren zapalketa eta erresistentziako ardatz ezberdinei dagokionez, beste Ekimuin dossierretan jasotakoarekin bat etorritz.

Unibertsitate Eraldatzaile batek ulertzea eskatzen du, sistema globalizatu, kapitalista eta heteropatriarkalean indarrean dauden botere mekanismoen konplexutasuna, sistema hau egokitzen delako diskurtsoak bereganatzeko edukiez hustuz, eta ezinbestekoa da genero ikuspegia ez geratzea Berdintasuneko kontzeptu bera murriztua termino neoliberaleran, eduki politiko, sozial eta identitatez hutsa eta Giza Eskubideen ikuspegikoa.

HAUSNARKETAK INTERSEKZIONALITATEA ETA FEMINISMOAK

Mugarik Gabe

Interseksionalitatera gerturatu gara gure esperientziatik, erakunde internazionalista bezala, mugimendu feministekin eta herri indigenen mugimenduekin aliantzan, Euskal Herria eta Latinoamerika, besteak beste. Kontziente gara pribilegio ugari ditugula, baina baita aliantzak sortu eta sendotu ditzaketen kontzeptu horiek sakontzeko larritasuna, beharra eta nahia dagoela, presazkoak eta beharrezkoak diren aldaketan aurrean. Kezka edo zalantzatik kokatzen gara, baina praktika eta kontzeptu emantzipatzaileak ikasten eta eraikitzen jarraitzeko gogotik ere. Kokatzen garen leku horretan, sustatzen saiatzen garen Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza ezinbesteko beste tresna bat da, bai unibertsitatean bai hezkuntzako eta gizarteko beste testuinguru batzuetan.

Azken urteetan feminismoaren gaineko gure eskarmentua eta ezagutzan sakontzen joan gara, norbanakotik eta gure antolamendu-praktiketarik. Apustu nahi ikustera ematen joan da mugimendu feministekin dugun aliantzan, bai ikaskuntza hauek barneratzea beste proposamenetan, transnazionalen aurkako borroka edo bizitza jasangarriagotarako alternatibak abian jartzea, bestek beste.

Testu honetan gertaeren laburpen bat jaso nahi izan dugu, egun interseksionalitateaz hitz egitea posible egiten dutenak, tresna gako bezala zapalkuntza ezberdinak jasotzen eta barneratzen dituzten proposamenak eta alternatibak gauzatu nahi baditugu, baita aurkitzen ditugun hainbat erronka ere.

HAUSNARKETAK INTERSEKZIONALITATEA ETA FEMINISMOAK · Mugarik Gabe

JATORRIA ETA KONEXIOAK

Feminismoak azken hamarkadetan, mendeetan eboluzionatzen joan dira teoria eta mugimendu bezala. Nabarmentzen dira bere hasiera ezagunenak ilustrazioko feminismoa eta sufragismoa, eskubide zibilak lortzeko borrokan zentratua eta sufragio unibertsala. Hainbat ekarpen pasa dira, “Ez da emakume jaiotzen, emakume izatera iristen da” Simone de Beauvoir-ena bezala, sexu ezberdintasunaren kultura eraikuntza planteatzen, edo “pertsonala dena politikoa da” goiburua 60/80 hamarkadetan iristen dena Emakumeen Askapen Mugimenduarekin eta feminismo erradikalarekin, sexualitatearekin erlazioatutako elementuak agendan jartzeko eta sistema patriarkala salatzeke errealtatearen egiturazko azterketa eta sistemiko batetik.

Une horretan feminismo ezberdinago bat, batzuk, eraikitze beharra ikustera ematen da, emakumeen heterogeneotasuna, euren zapalkuntzak eta proposamenak barneratzen dituztenak. Zalantzan jartzen da diskurtsoaren unibertsaltasuna, generoaren mugak kategoriatan analitiko bakarra bezala eta identitateen, zapalketen eta pribilegioen konplexutasuna. Testuinguru honetan Intersekzionalitate kontzeptua sortzen da, azken urteetan gehiago erabili dena eta feminismoek berriz hartu dutena analisi zentralako kategoria bezala, baita beste gizarte mugimendu batzuek eta politika publikoek ere.

Kontzeptu honek “generoa, etnia, sexualitatea, klasea, herritarren posizioa, aniztasun funtzionala, adina, edo formazio maila bezalako kategorizazioko eta ezberdintzeko ardatz ezberdinek duten erlazioa aztertzea posible egiten du menderatzeko prozesuetan modu konplexuan inbrikatuak daudenak. Ikuspegi honek azpimarratzen du kategoria sozialak, “naturalak” edo “biologikoak” izatetik urrun, eraikiak direla eta elkarren artean erlazioatuta daudela; eta botere erlazioen inguruan eta pribilegioa nola artikulatzen den galdetzeraz eramaten duela (Platero, 2012). (Gandarias, 2017)

Intersekzionalitate kontzeptua Kimberlé Crenshaw abokatu feministak hasi zuen erabiltzen 1989 urtean EBn,

“Demarginalizing the intersection of race and sex” bere testuan (Gandarias, 2017). Crenshaw-ek azaltzen du gizarte justiziako arazo asko, arrazakeria eta sexismoren kasua bezala, gainjarri egiten direla gizarte injustiziako maila ugari sortuz. Proposamen hau sortzen da narratiba berriak eraikitze behararen aurrean, Emma Graffery kasuan bere esperientziaren aurrean, berak General Motors enpresan kontratatua ez izatea salatu zuen emakume beltza izateagatik, eta bere kasua gaitzetsia izan zen bi zapalketak lotzeko gai ez ziren markoak, azterketa partzialen eta distorsionatuen markoak, erabiltzeagatik. [1]

Intersekzionalitate ideien jatorria gizarte mugimenduetan dago, bereziki feminismo beltzean. Ildo honetan nabarmentzen da “Un manifesto feminista Negro” (1977) Combahee River Collective taldearena, zapalketen aldiberekotasunaren azterketan erreferente bezala (Platero, 2014). Baina zapalketa modu ezberdinen eta genero identitatea homogeen bezala zalantzan jartzearen arteko konexio hau ikustera ematen da askoz lehenago, Sojourner Truth-en bezalako diskurtsoetan “Ain’t I a Woman” (Ez naiz ba ni emakume bat?), 1851 urtean adierazia Ohioko emakumearen eskubideen Konbentzioan. Eta beranduago, aktibista feminista emakume beltz asko jarraitu zuten Angela Davis edo Bell Hooks bezala, klasismoa genero eta arraza zapalkuntzari gehitu zien, ez soilik kontzeptuaren sorreratik, izaera kolektibo eta kontrahegemoniko argi batetik baizik. Aktibista eta teoriarari hauen salaketa zentral asko eraginkortasun ezarekin erlazioatzen ziren, bai feminismoaren marko teorikoenak bai anti-arrazismoarenak, emakume beltzen bazterketa eta diskriminazioa azaltzen.

Testu honetan ezin ditugu ahaztu nahi feminista sozialistak eta marxistak, zapalkuntzako sistema dualak kontzeptualizatu zituzten patriarkatua gizarte klasearekin erlazioatzean. Emakumeen eremu publikoan eta pribatuan bizi zituzten desberdinkeriak salatu zituzten, eta patriarkatuaren eta kapitalismoaren aurka borrokatzea proposatu zuten (Platero, 2014).

[1] Kimberlé Crenshaw beraren bideoa ikustea gomendatzen dugu Intersekzionalitate kontzeptua azalduz: https://www.ted.com/talks/kimberle_crenshaw_the_urgency_of_intersectionality?language=es

HAUSNARKETAK INTERSEKZIONALITATEA ETA FEMINISMOAK · Mugarik Gabe

Intersekzionalitatean aurrera eginez, Patricia Hill Collins bere testuan hitz egiten hasten da intersekzionalitatea paradigma bezala, *Black Feminist Thought: Knowledge, Consciousness and the Politics of Empowerment* (1990). Patricia Hill Collins-ek Crenshaw-ren Intersekzionalitate kontzeptua berriz hartzen du, bereganatu eta berrinterpretatu egiten du planteatuz, zapalketa modu asko nola konektatzen diren “menderatze matrize” bat osatzeko. Identitatea gainjartzen diren bezala, botereko egiturazko desoreka mantentzen duten jerarkiak ere gainjartzen dira. Collins-ek bi kontzeptu desberdintzen ditu. Alde batetik, intersekzionalitateaz hitz egiten digu pertsona edo talde ezberdinen zapalkuntza moduak adierazteko, kategorien konexioetatik gauzatuak (sexu orientazioa, etnia, klasea, generoa...). Eta, beste aldetik, zapalketako matrizea, praktikan zapalkuntza hau onartzen duten kategorietako egiturazko antolakuntzari erreferentzia eginez, modu isolatuan funtzionatzen ez duten zapalkuntzan kategorio hibrido berriak sortzen dituztenak baizik (ikus grafikoa). Nabarmentzen da ere azterketa kokatuak burutzen dituen ikuspegi bat izatearen garrantzia, zapalkuntzak gertatzen diren eta aztertzen eta interpretatzen diren une eta leku zehatzak kontuan hartuta, (Santibañez, 2018).

Intersekzionalitate kontzeptuarekin konektatua diskriminazio anitza kontzeptua aurkitzen dugu, diskriminazio bikoitz edo hirukoitzaren analisi kritikotik sortua, diskriminazio hauek gehitu egiten diren moduan ulertzen zituelako. Diskriminazio anitzaren ikuspegiak diskriminazio arrazoi bakar bat ez dagoela ulertzen du, elkarren arteko erlazio anitzak baizik, binarismoak hautsiz eta identitateen eta pribilegioen azterketa konplexu bat proposatuz. Hainbat kasutan, politika publikoek ideia hau berriz hartu dute, baina jatorrian intersekzionalitatea kontzeptuaren erradikaltasuna galduz. Jatorria, gizarte mugimenduek pribilegioen begirada kritiko eta eraldatzaile bat planteatzen zuten eta ez soilik aniztasunak gehiago ikustera ematea (Platero, 2014).

Testu honetan ezin ditugu alde batera utzi feminismo de(s)kolonialak, intersekzionalitatearekin ere konektatu dutenak azterketa eta eztabaida elementu bezala bere


proposamenetan, boterearen kolonialitatea bezalako beste hainbat kontzeptu bezala. “Feminismo deskoloniala hazkunde eta heldue osoan dagoen mugimendu bat da, feminismoaren teoria eta proposamen politikoaren errebisionista agertzen dena, bere mendebalde-joera hartzen duena, zuria eta burgesa. Izena lehen aldiz proposatzen du Maria Lugones-ek. (...) Feminismo dekolonialak jaso, elkarrizketan jardun eta berrikusi egiten du pentsatzaileak, intelektualak, aktibista eta borrokariak, feministak edo ez, familia indigena, afrikarra, herri-mestizaia, nekazariak, migratzaile arrazializatuak garatzen ari diren pentsamendu eta ekoizpenekin, baita Latinoamerikan eta munduan menpekotasunarekin konpromisoa duten akademia emakume zuriak ere”. (Espinosa, 2016) Feminismo deskolonial honek, mendebaldeko kategorio modernoek unibertsaltasuna eta izaera egonkorra kritikatzear gain, historiaren ber-irakurketa bat planteatzen du, ezagutzen aniztasuna berreskuratuz eta aintzat hartuz, beti ere pentsamendua eta ekintza politikoa konektatuz.

Hausnarketa hauek emakume indigenen mugimenduaren eta feminismo indigenaren ekarpenekin ere erlazionatzen dira, nabarmentzen dutenean, beste identitate zapaltzaile batzuk alboratzen direnean emakumeetan (indigenak, pobreak, landa eremukoak, onartutako ikasketarik gabeak...) ez dira kontuan hartuko menpekotasun egoera eta baldintzak zehatzak, emakume bezala eta indigena bezala aldi berean. Sojourner Truth-ek egin zuen bezala, lider indigena batek baieztatzen zuen XI Topaketa Feminista Latinoamerika eta Karibekoan “askotan emakumeen mugimenduak emakumeekin soilik ikusi nahi gaitu” (Rosas eta Rios).

Emakume indigenen mugimenduaren beste ekarpen klabe bat hausturaren zentralitatea izan da mendebaldeko ikuspegi indibidualista gehiegikeriarekin, bere diskurtsoan eta praktikan, kolektibitatearen aldeko bere apustua eguneratzen eta berriz kontzeptua ezarriz. Proposamen hauek eztabaida eta eboluzio historikoa sakontzen jarraitzen dute feminismoaren subjektua nor den horren inguruan, kontaketa zabaltzeko, adierazpen zabalak bilatzeko garrantziarekin, mugimendu feministen aniztasuna ordezkatzeko dituztenak. Ez da zeregin erraza baina ahalegin

HAUSNARKETAK INTERSEKZIONALITATEA ETA FEMINISMOAK · Mugarik Gabe

Ejes de opresión y resistencia de Patricia Hill Collins, (1990)



HAUSNARKETAK INTERSEKZIONALITATEA ETA FEMINISMOAK · Mugarik Gabe

Una guía divertida sobre la INTERSECCIONALIDAD



Este es Bob.

Bob es un triángulo a rayas azules y DEBERÍA ESTAR ORGULLOSO.



Es una pena que a algunas personas no le guste Bob. Bob se enfrenta a ser discriminado por ser un triángulo y tener rayas.



Afortunadamente, ¡hay grupos de liberación! Pero no son interseccionales.

SON ASÍ



No se hablan, de hecho, compiten

Bob sabe donde ir.



Bob desearía que los triángulos y las rayas pudieran trabajar juntos.



LA INTERSECCIONALIDAD ES LA CREENCIA DE QUE LAS DISCRIMINACIONES ESTÁN ENTRELAZADAS Y NO SE PUEDEN RESOLVER POR SEPARADO.

LAS DISCRIMINACIONES NO SON INDEPENDIENTES. ¡INTERSECCIONALIDAD YA!

@MiriamDobson

hau garrantzitsua da gure diskurtsoak konplexu egiteagatiketa bereziki baztertzailak ez izateagatik. Platerok (2014) definitzen du intersekzionalitatea gure bizitzan agintzen duten botere harremanen aniztasunaren ikerketa bat izango litzatekeela, bazterketak, pribilegioak, agentzia eta ahalduak barneratuz. Ikuspegi honek planteatzen du generoa, etnia, klasea edo sexu orientazioa, besteak beste, eraikiak direla eta modu konplexuan erlazionatzen direla elkarren artean. Eta bere indarra ez litzateke hierarkizatzea, testuinguru bakoitzean erabakigarriak diren identitate horietan arreta jartzea baizik, nola irudikatzen diren subjektuetan eta horrela esan nahi bat eman ahal izatea.

Testuinguru honetan eta sexu eta genero aniztasun ikuspegiarekin konexioan "ulertzen dugu pertsonen eraikitzen ditugun identitateak gurutzaketa askoren emaitza direla. Emakume bezala, gizon bezala edo bi kategoria hauetan sartzen ez den beste modu batean identifikatzeko aukera dugu, baita gustuko aukera sexual ezberdinak hartzeko aukera ere desioari eta afektuari dagokionez. Baina bi sexuko edo bi generoko sistemaren gure identitate aukerak askatzeko apustu honetan, kanpoko elementuen eraginak garrantzia berezia hartzen du, askotan inkontzienteak direnak eta gure agentzia mugatzen dutenak. Asimilazio inkontzienteak eta presio sozialak gure aukerak baldintzatzen ditu. (...). Baina honek ez du esan nahi zehazten gaituenik, ezin dugunik aldarrikatu gure identitatearen definizioan askatasuneko espazio zabalago bat", (Nahia, 2013).

HAINBAT ERRONKA

Denbora honetan guztian, aurrerapenak asko izan dira, ez soilik intersekzionalitatera lotutako ezagutza ezberdinen eraikuntzan, baita hauek praktikan jartzean, mugimendu feminista eta beste gizarte mugimenduetatik zein politika publikoetatik. Hala ere, hainbat arrisku aurkitzen dugu kontzeptuaren instrumentalizazioan, konfusioan edo sakontasun gabezia bere erabileran, batzen duen zerbaitetan bihurtzea, zapalkuntzen arteko lehiaketa batean bihurtzea edo testuinguruaren azterketa deskonektatu baten bihurtzea.

HAUSNARKETAK INTERSEKZIONALITATEA ETA FEMINISMOAK · Mugarik Gabe

Gaur eguneko erronketako bat proposamen honen jatorrien izaera erradikala, kolektiboa eta eraldatzailea mantentzea da, “normaltasuna”, eredu bakarrak desafiatuz eta pribilegioak zalantzan jarriz gako ahalduntzaile batetik. Proposamen honek eta aurretiko eta ondorengo ekarpen guztiek “galderak eta azterketak barneratzen ditu adierazten dutenak, entzuten ez ditugun ahotsak, ezagutzen ez ditugun arazoak eta “berdintasunekoak” diruditen ekintzen edo politiken ez desiratutako ondorioak daude. (...) Apustu teoriko ezberdinak ezagutzea eta hauek nola irudikatu ahal izatea, pentsamendu kritikoaren genealogiak ulertzen lagundu dezake, aktibismoarentzat, irakaskuntzarentzat o politikarentzat baliagarriak izan daitezkeen ezagutzamultzoko bat eskaintzen”, (Platero, 2014).

Intersekzionalitatea eta kontzeptu honetatik eratorritako eta berarekin erlazionatutako hausnarketa guztiek elkarren aurrean jartzen gaituzte eta gure identitatearen eraikuntza berrikusteko aukera eskaintzen digute, testuinguruaren beraren aukerak, pribilegioak eta zapalkuntzak aztertuz eta besteekiko harremanetan. Horrez gain, ikuspegi honek feminismoetan, desberdinkeriak aztertzea proposatzen digu esperientzia indibidualetik haratago, gure dinamika indibidualak zein kolektiboak berrikusiz, dekolonial eta anti-arrazista ikuspegi batetik, begirada dikotomikoak hautsiz eta emakume unibertsalaren ideia ere zalantzan jarriz, errealitate konplexu bakoitzeko testuingurutik kanpora ateraz. Ildo honetan, Espinozak (2016) erronka bezala planteatzen du emakumeak generoko sistema kolonial modernoagatik subjektu zapaldu bezala hartzea, hausnartuz “ea posible den eskatzea elkartasun eta proiektu politiko bat, helburu hauen inguruan antolatzen dena, posizioekiko zor historikoa onartzen duen heinean identitateko posizioekin, pribilegioko eskala baxuagoan”.

Pribilegio hauetan ez dugu aipatu gabe utzi nahi dosier honen esparruan, binarismoa eta esentzialismoaren kritikaren arteko konexioa, emakumeen, lesbianen, gay eta trans-en diskriminazioak eta zapalkuntzak ez inbisibilizatzeko garrantziarekin, hetero-arau jartzetik ateratzeagatik, (Nahia, 2013).

Intersekzionalitate ikuspegia aukera bat da ikuspuntu hau barneratzeko, ez bakarrik errealitatea aztertzeko, baita modu kritikoan eta kontrahegemonikoan eraldatzeko aldaketak proposatzeko. Oso garrantzitsua da azterketa eta proposamen feministetan aurrera egitea, mobilizaziotik deskonektatu gabe, aktibismoak mantenduz, mundu aldakor eta globalizatuan geroz eta zeharkakoagoak izanez, ez uniformeak.

- María Viadero Acha, Mugarik Gabe

Intersekzionalitateak eskaintzen dizkigun zapalkuntzako kategoria ezberdinen gaineko hausnarketa eta azterketak trantsizioa erraztu dezake, geroz eta anitzagoa eta konplexuagoa den mugimendu feministaren subjektu baten biderantz, bazterketen eta hierarkien aurkako bere borrokak sendotzen doan subjektua.

BIBLIOGRAFIA

- Espinosa Miñoso, Y. (2016) De por qué es necesario un feminismo descolonial: diferenciación, dominación co-constitutiva de la modernidad occidental y el fin de la política de identidad. *Revista Solar*, Vol12, nº1. DOI. 10.20939/solar.2016.12.0109
- Gandarias Goikoetxea, I. (2017). ¿Un neologismo a la moda?: Repensar la interseccionalidad como herramienta para la articulación política feminista. *Investigaciones Feministas*, 8(1), 73-93. <https://doi.org/10.5209/INFE.54498>
- Platero Méndez, R. (Lucas) (2014). Metáforas y articulaciones para una pedagogía crítica sobre la interseccionalidad. *Quaderns de Psicologia*, 16(1), 5-72. <http://dx.doi.org/10.5565/rev/qpsicologia.1219>
- Rosas Vargas, R. y Ríos Manríquez, M. (coords.). *Diversidad Cultural y Género*. México. Disponible: <http://www.redui.org/cii/sites/default/files/field/doc/Genero%20Diversidad%20Cultural.pdf>
- Santibáñez Guerrero, D. (2018). El concepto interseccionalidad en el feminismo negro de Patricia Collins. *Resonancias. Revista de Filosofía*, (4), 49-58. doi:10.5354/0719-790X.2018.50354
- Villar, A., Canarias, E., Altamira, F., Mujika, I., Caballero, I., Fernández, M. y Celis, R. (2013). Los deseos olvidados. *Nahia*.


FEMINISMO DEKOLONIALA

Kritika dekoloniala ezin dezakegu bereganatu aurretik onartzen ez badugu bazterketa gizarte ezagutza eta sailkapeneko sistema batean oinarritzen dela, bere barruan zapalkuntzako menperatzeko kategoriak sortu direlarik (genero, arraza, klasea), kolonizazioaren bidez osatua. Ildo honetan, feminismo dekoloniala ez da ezagutza ekoizteko beste modu baten aldeko apustu egitea, horrez gain, hazkunde osoan eta heltze prozesuan dagoen mugimendu bat da, mendebaldeko feminismoaren teoriaren eta apustu politikoaren errebisionista bezala aldarrikatzen da, honek bere defendatzaileen klase eta arraza posizioetatik joera definitu bat duelako.

Feminismo dekoloniala feminismo beltzak hasitako, koloreduna eta hirugarren mundukoa Estatu Batuetan, tradizio teorikotik abiatzen da, zapalkuntzako egitura hirukoitza (klasea, arraza, generoa) pentsatzeko ekarpenekin, emakume eta feminista afro-ondorengoen eta indigenen ondare kritikoa berreskuratzeko asmoa duela ere, Latinoamerika, Afrika eta islam mundutik ikusezintasunaren bere arazoa planteatu dute beraien mugimenduan barruan eta feminismo beraren barruan.

Feminismo dekolonialak planteatzen du mendebaldeko pentsamendu feminista emakume talde espezifiko baten aldetik sortu dela, pribilegio epistemologikoa izan duten emakume taldea, euren klase eta arraza jatorriari esker eta hemendik abiatuz, aldeetatik ekoiztako pentsamenduaren genealogia bat elaboratzen du, feminista lesbianek eta oro har arrazializatutako pertsonen ekoiztiak. Zapalkuntzako egitura hirukoitza bertan behera botatzearen aldeko apustu egiten duten horiek sortutako ezagutzekin elkarrizketa bat proposatzen du, ikuspuntu ez eurozentriko bat onartuz.

Mendebaldeko hainbat teorialari feminista zuri, feminista beltzek eta koloredunek ireki dituzten eztabaidei dagokionez hausnarketak barneratzen badituzte ere, honek ez du bideratu generoan oinarritutako zapalkuntza baten teorizazio feminista hegemonikoaren oinarritzko premisak suntsitzea, emakumeen menpekotasuna azaltzeko funtsezko kategoria nagusia bezala. Hainbat analisisietan emakume ez zurien bizitzan arrazismoaren eta kolonizazioaren eraginak daudela agertzen badira ere, teoria






orokorra ukigabea jarraitzen du. Zentzu honetan, erdialdeko herrialdeetan finkatutako emakume zuri burgesek ekoiztutako epistemologia feminista klasikoak ezin izan zuten onartu, bere praktikak zientzien jakintzen ekoizpen moduari kritikatzeko zizkion arazo berdinak errepikatzen zituela.

Unibertsaltasun androzentrikoa kritikatzeko bitartean genero kategorioa ekoiztu zuten eta unibertsal moduan aplikatu zuten gizarte eta kultura guztian, ezin azalduz genero sistema mendebaldeko gizarte modernoetako emakumeen zapalkuntza azaltzeko sortzen den zerbait dela. Teoria eta kritika feminista zuriak arrazismoaren jardura historikotik eta kolonialitatekin urrun dauden kontzeptuak eta azalpenak ekoizten amaitzen dute, emakume gehienek zapalkuntza zerbait garrantzitsua bezala.

Anibal Quijano bezala garrantzia handiko egileek adierazten dute ezagutzaren iraultzako une batera iritsi dela feminismo dekolonialari esker, honek mendebaldeko ekoiztutako aldazio teorikoa berrikusten duelako, boterearen jarrera azaltzen duten interpretazio berrien ekoizpenean aurrera egiten duen neurrian, bere baitan kontra-hegemonikoak bezala onartzen diren posizioetatik. Azken batean, egia hegemoniko ekoizpeneko-aldazioa osatzen duten kontzeptuzko marko berrien ekoizpenarentzat oinarritzeko ekarpen bat osatzen du, hasieran Europatik eta beranduago Estatu Batuek indarrez inposatua, Amerikaren konkista eta kolonizazioaren unetik bertatik.



SEXU ETA GENERO ANIZTASUNA

Berdintasunaz edo genero ikuspegiak hitz egitea berdina ez den bezala, ikuspegi guztiek ez dute barneratzen aniztasun sexu-afektiboa eta genero aniztasuna. Borroka feministak eta LGBTI pertsonen borroka zati komun handi bat partekatzen dute heteropatriarkatuaren opresioen barruan, interseksionalitateak kasu bakoitzean opresioak, diskriminazioak edo menderatze zehatzak sortzen baditu ere. Ikuspegi interseksionala ikasgeletan aurrez aurre egon beharko luke, bere opresioak bertan daudelako. Historian, mugimendu feministak eta aniztasun sexu-afektiboko mugimenduak aliatu naturalak izan dira, nahiz eta egun feminismo zehatz baten eta LGBTI komunitatearen aldarrikapenen artean konfrontazio bat dagoen.

Eztabaida emakume transexualen inguruan dago feminismoaren subjektu bezala, eta ez da mugimendu feministen kolektibitatearen ordezkari, hainbat feminismo erradikalen barruan (ohiko moduan TERF deitzen dena, ingelesetik trans-exclusionary radical feminist) feminismo trans-baztertzaille bat existitzen bada ere, heteropatriarkatua errotik lantzen duten feminista guztiek ez dute jarrera hau partekatzen. Batzuetan -adibidez 2019ko M8ko koordinazioan Madril-en txoke honi eman zaion ikusgarritasunak, mugimendu feministen barruan gutxiengoa den iritzi bat goratzea eraman du. Izan ere, feminista ez izatea LGTB+ kolektiboaren gaineko aurreiritziekin erlazionatua zegoen modu esanguratsuan (Worthen, Lingiardi, y Caristo, 2017).

Homofobia mailak modu positiboan erlazionatuak izan dira sexismoko mailekin, eta, gainera, gizonen ikasleetan altuagoak dira (González, del Viejo eta Flores, 2008; Rivera eta de los Santos, 2016; Pettijohn eta Walter, 2008; Piedra de la Cuadra, Rodríguez Sánchez, Ries eta Ramírez Macías, 2013). Gizon heterosexualak jarrera negatibo gehiago adierazten dituzte homosexualitatearen aurrean emakume heterosexualak baino; generoko rol tradizionalekin erlazionatutako sinesmenei babes, sexismo modernoa eta hipermaskulinitatea jarrera homofoboekin erlazionatuta daude (Finlay eta Walther, 2003; Herek, 2003; Hinrichs eta Rosenberg, 2002; Whitley, 2001). Dirudienez garaia iritsi da patriarkatuaren rola eta heteronormatibitatea modu serioan hartzeko ikaslearen bizitzan, gure erakundeak

heterosexualizatuak daudelako eta misoginoak direlako (Misibo eta Jagessar, 2015).

LGBT+ pertsonen aurrean diskriminazioa errealitate bat da herrialdeko guztietako unibertsitate eremuan, eta estatu mailan egindako ikerketa ezberdinek jasotzen dituzte ikasgeletan ematen diren komentario, agresio eta jarrera homofoboak, baita gabezia handiak gai honen inguruan landu beharko litzatekeen graduatan, Psikologia, Magisteritza edo Gizarte Lana bezala. Gainera, korrelazio bat existitzen da aniztasun sexu-afektiboaren gaineko curriculum edukien artean homofobia maila txikiagoekin (Escalante, 2013; Mitchell, 2009; Penna, 2012; Tosso, 2015; Zambrano Plata eta Francis eta Msibi, 2011).

2016 urtean LGBT pertsonentzat lehenengo arreta zerbitzua sortzen da unibertsitate publiko batean Espainian, zehazki, Madrilgo Unibertsitate Konplutensean. Urte horretatik aurrera unibertsitateak “Aniztasun Sexual eta Genero Identitatea Bulego” bat izan du, bere helburua da “unibertsitate eremuan modu integralean lan egin LGBTI+ kolektiboarekin” (Borraz, 2016; Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, 2016). Arreta indibidualizatua eskaintzen du, LGBTI komunitatearen gaineko diagnostikoak UCM, formazioa eta sentsibilizazio kanpainak (Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, 2016). Horrez gain, Unibertsitate Konplutenseak “jazarpen sexuala, jazarpen sexista eta orientazio sexualagatik eta genero identitate edo adierazpen jazarpeneko gida” bat du, genero berdintasuneko unitatetik gauzatzen dena, genero eta sexualitate gaien ondorioz jazarpena prebenitzeko eta ekiditeko (Madrilgo Unibertsitate Konplutensea, 2017). Hemen ikus daiteke, berriz ere, arazoak barneratzea bai mugimendu feministatik bai LGBT+ mugimendutik.



ANIZTASUN SEXU-AFEKTIBOA EUSKAL UNIBERTSITATEETAN

Ekimuin markoaren barruan, Emaús Gizarte Fundazioak 2019ko apirilean lantegi bat burutu zuen, Unibertsitatean LGBT+ kolektiboaren egoeraren gainean, bertan eredu heteronormatiboaren nagusitasun bat eta genero estereotipoen errepikapen bat nabarmendu zen; baita SGA (Sexu eta Genero Aniztasuna) barneratzeko konpromiso erreal baten gabezia ere akademia eremu formalean eta eremu informalean sustatu.

Kolektiboak Unibertsitateari egindako kritika nagusia da eraldatzailea izateko asmo garbirik ez duela, eragile guztiei erlazionatzen ez dien neurrian, ezta beharrezkoak diren

bitartekoak eta denborak erraztu ere, praktika egokiak irakasle edo departamentu zehatzen borondatearen arabera dira. SGAREN sustapenerako egitura espezifikoaren gabezia gako eraldatzailean lan egiten duten pertsonen errekonozimendu gabeziarekin eskutik doa.

Jarraian aurkezten den taulan jasotzen dira SEXU ETA GENERO ANIZTASUNA (SGA) UNIBERTSITATE ERALDATZAILE BATERAKO lantegitik ateratako arazo eta proposamen zehatz nagusiak (2019ko maiatzaren 8an, UPV/EHU Donostian):



PROPUESTAS CONCRETAS (MAYO 2019)	CONTRASTE CON LA UNIVERSIDAD (OCTUBRE 2019)
Promover la formación sobre DSG con un seguimiento desde el Consejo de Igualdad, formación exigible al profesorado que puede implementarse primeramente con seminarios voluntarios cuya participación sea reconocida internamente.	Existe formación disponible en las diferentes universidades, tanto a modo de formación presencial u online, como seminarios y materiales específicos. La exigibilidad de la formación al profesorado aún no es una realidad, aunque sería necesario caminar en esa dirección.
Difundir de materiales públicos entre alumnado y profesorado que aborden de manera divulgativa las temáticas de la DSG.	Materiales como las guías de lenguaje inclusivo o los protocolos contra violencias se incluyen actualmente en los packs de bienvenida. Del mismo modo podría realizarse la divulgación específica de DSG.
Realizar una revisión curricular que examine si se incluye una perspectiva de género y de diversidad sexoafectiva, y en el caso de que así sea analice la manera en la que se trata.	Las universidades apelan a la rigidez en las líneas curriculares establecidas desde el Gobierno central. Se incluyen las iniciativas de cada universidad en esta línea, pero existen resistencias tanto a nivel individual en el caso de profesorado como tensiones a nivel institucional en algunos casos. El tratamiento inadecuado de la temática en carreras como Trabajo Social o Educación requiere una revisión y análisis específico.
Elaborar un repositorio de TFGs y TFMs (dentro o fuera del sistema ADDI) destacados que traten temáticas de DSG.	De experiencias similares a los repositorios se extrae el aprendizaje de la dificultad metodológica que supone acotar cuándo un trabajo aborda de manera transversal el enfoque de género o la DSG.
Recopilar las buenas prácticas que ya se llevan a cabo en las universidades que puedan servir de ejemplo para otras prácticas y/o instituciones.	Se comparten las buenas experiencias entre las facultades de una misma universidad y existen jornadas interuniversitarias estatales e internacionales, pero un documento como este dossier que recoja periódicamente las prácticas de cada universidad y potencie la alianza entre las tres universidades sería muy enriquecedor.
Contar con mecanismos de respuesta específicos ante las discriminaciones y agresiones.	Se apuesta por unos protocolos generales inclusivos en lugar de específicos, aunque las respuestas se adaptan a las discriminaciones específicas (por ejemplo el trabajo en aula ante un caso de homofobia en la UPV/EHU).
Ofrecer espacios multidisciplinares abiertos al diálogo y a actividades que promuevan la DSG.	Lo más cercano a un espacio así es un proyecto de la UPV/EHU aún sin ejecutar.

i3
♀



ERRONKAK, AUKERAK ETA PRAKTIKA EGOKIAK

Euskal unibertsitate inguruan (UPV/EHU, Deustu eta Mondragon Unibertsitatea) genero ikuspegiaren gaineko diagnostikoek emakumeen eta gizonen ehunekoen ikuspegi kuantitatibo batean mugatzeko joera izaten dute. Garrantzitsua eta beharrezkoa den arren, ikuspegi honek berdintasunezko feminismo batera mugatzeko arriskua du feminismo neoliberal eurozentrikoaren lerroan. Horrez gain, Emakundeko txostenetatik aparte (UPV/EHUK soilik lantzen duena), unibertsitatearen diagnostiko gutxi daude kanpotik eginak, hainbat kasutan ikuspegi kritikoa galduz irudi korporatiboaren alderako.

Handinahia izango litzateke baieztatzea dossier honek euskal unibertsitateen genero eta SGA diagnostiko bat burutzen duela, funtzio hau burutzeko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak ez dituelako. Hala ere, gida modura hiru unibertsitateetan burututako praxi egokiak eta esperientziak jaso nahi izan ditugu, baita genero ikuspegia eta SGA lantzearen aldeko apustu egin duten irakasle eta ikertzaileek hartutako zailtasunak eta estrategiak ere.

Atal hau elaboratzeko gako izan diren bost eragileren lankidetzak izan dugu

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA



ITZIAR GANDARIAS
Gizarte Psikologian Doktorea,
generoa eta migrazioetan Aditua,
Irakaslea eta Ikertzailea



MARÍA LÓPEZ BELLOSO
Giza Eskubideetan Doktorea,
generoko departamentu-arteko
Plataforma, GEARING-Roles
proiektuaren Koordinatzailea



MONDRAGON UNIBERTSITATEA (MU)



ARANTXA GONZALEZ DE HEREDIA
Industria-Diseinuan Doktorea,
Irakaslea eta Ikertzailea
Goi-mailako Eskola Politeknikoko
Berdintasun Taldea



IDOIA PEÑACOBA
Idazkari Nagusia MU Errektoretzaren
Berdintasuneko Taldea Proiektuaren
Koordinatzailea




Promoting gender balance and inclusion
in research, innovation and training

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA VASCO (UPV/EHU)



LEIRE IMAZ ZUBIAUR
Gizarte Zibilean Doktorea Irakaslea eta
Ikertzailea
Berdintasunerako Batzordearen
Berdintasunerako Zuzendaria UPV/EHU



AKADEME

UPV/EHUko
emakume akademikoen
lidergorako programa
Programa para el
liderazgo de las
académicas de la UPV/EHU



Deustuko Unibertsitatea

Sortua 1886 urtean

Bizkaia eta Gipuzkoa

Ikaslegoa: \approx 12.400


Irakaslegoa: 638

Ikerlariak: 132

Deustuko Unibertsitateak (1886) tradizio luze eta ongi finkatua du hezkuntzan eta ikerketan. 1959 urtean lehenengo ikasle emakumeak sartu zenetik, emakumeen presentzia garrantzia hartzen joan da UDEUSTOn. Oso feminizatua dagoen erakunde bat bada ere (emakumeak dira langileen %62,10 [irakasleen %50,25 eta administrazioko eta zerbitzuen langileen %71] eta ikasleen %58,75), orokortasun honen salbuespenak daude, Ingeniaritza Fakultatea bezala, oraindik oso dago maskulinizatua, %31,58 baino ez dira emakumeak.

Jesuiten erakundea bezala, 1995 urtean UDEUSTOk genero desberdinkeria gizarte bidegabekeria bat zela onartu zuen bere misio barruan konpontzekoa, eta azken urteetan, genero berdintasunaren lorpena lehenetsuneko helburu batean bihurtu da. Honek inplikatzeko du Eliza Katolikoaren egitura patriarkaletatik eratorritako erronka material eta sinbolikoei arreta berezi bat. Egoera hau gainditzeko, eta berdintasunaren legediak ezarritakoari erantzunez, Berdintasun Batzorde Parekidea sortu zen zuzendaritzako ordezkariekin, sindikatuen ordezkarietako kideekin eta Unibertsitateko berdintasun arduradunarekin osatua. Bere hasieratik batzordeak hainbat ekimen interesgarri gauzatu du berdintasun alorrean: lehenengo berdintasun diagnostikoa elaboratzea eta onartzea, ondoren II Berdintasun Plana elaboratzeko, Erakundeko Plan Estrategikoan txertatua (Deustu 2018-2021) eta Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuneko Politikan barneratua; aipatutako planean AZPrentzat bateragarritasun eta ordutegi malgutasuneko neurri multzo bat barneratzea; gaztelania, euskara eta ingelesaren erabilera ez sexistarako gida bat onartzea; lan, sexu eta sexista Jazarpenerako Protokoloa onartzea; eta berriki, bigarren berdintasun diagnostikoa onartzea.

Unibertsitateak emakume ikertzaileak eta taldeak ditu Generoan lan egiten, bereziki Komunikazioa, Gizarte Lana, Soziologia, Psikologia eta Gizarte Hezkuntza eremuaren inguruan; eta, oso garrantzitsua, ingeniaria eremuan. Emakume ikertzaile hauen konpromisoak eta berdintasunaren mesederako Plataforma Interdisciplinar de género [2], sortzea bideratu zuen. Plataforma hau bideratzaile dinamiko bat da, elkartzen dituena ezagutzaren arlo ezberdinetako adituak lankidetzat sustatu eta dagoen esperientzia barneratu helburu bikoitzarekin, gizartean sortzen ari diren erronkak lantzeko genero gaiaren inguruan. Diziplina anitzeko plataforma honetatik estrategia bat abian jarri zen berdintasuneko Europar Agenda Unibertsitateko berdintasun planarekin lerrokatzeko. Modu honetan, 2019 urtean **GEARING Roles** [3] proiektua abiatu zen, H2020 Europar programak finantzatua, Deustuko Unibertsitateak koordinatua eta



bere helburua europar 6 erakundetan 6 berdintasun plan inplementatzea da. Proiektu honen babesarekin Deustuko Unibertsitateak Diagnostiko Instituzional berri bat garatu du eta ekintzei lehentasuna emateko prozesuan dago Berdintasun Plan berriarentzat.

Deustuko Unibertsitateak erantzukizun berezi bat du emakumeen eta gizonen berdintasun eskubidea gauzatzeko, ondorioz, genero ikuspegia barneratzeko konpromisoa hartzen du erakundearen, irakaskuntzaren, ikerketaren eta transferentziaren prozesu guztietan; era berean, eguneroko bizitza garatzen den kudeaketa baldintzak hobetzea. Berdintasunezko egituren ikuspegitik egitura ezberdinak koexistitzen dira Deustuko Unibertsitatean:

- Alde batetik, **Berdintasun Saila**, Maria Silvestre buru delarik, eta Unibertsitate Gizarte Erantzukizuneko arlo globalean txertatua dago. Unibertsitatearen Gizarte Erantzukizuna (UGE) [4] DEUSTU Plana 2018 urteko proiektu estrategikoetako bat da, Deustu: Zerbitzua eta Konpromisoa. Plan honekin Deustuko Unibertsitateak gizarteari eskaintzen dion zerbitzua sendotu nahi du, aktore ezberdinekin estuki konektatzen, errealtatearen irakurketa kritiko bat bultzatzen, gizarte prozesuetan parte hartzen eta gure antolatze moduak aldatzen. UGE bat jesuita unibertsitate baten Identitatea eta Misioren inspiratua eta barneratua, eta, ondorioz, Erakundearen Identitate eta Misioren Ordezkaritza zuzenean erortzen da.

- Bigarren lekuan, lehen aipatu den **Berdintasun Batzorde Parekidea** dugu, osatua zuzendaritzako ordezkariekin eta Bilbo eta Donostiako kanpusetako langileen sindikatu-ordezkariekin (RLT). Batzorde honen zeregina erakundeetan tratu eta aukera berdintasunaren aldeko neurri zehatzak sustatzea eta onartzea da, negozio kolektiboaren esparruan kokatzen da eta Unibertsitate Komunitatearen Errektoreordea da buru.

- Azkenik, aipatu den **Generoaren gaineko Ikerketako Diziplinarreko Plataforma**, Ikerketa eta Transferentzia Errektoreordetzatik zuzenean eratortzen dena, bere helburua da genero berdintasuna zeharkakotzen bideratzea ikerketan eta irakaskuntzan.

Horrez gain, Unibertsitateak abian jarri ditu hainbat ekimen generoaren gaineko kontzientzia eta onarpena sustatzeko Zientzia eta Teknologietan. Horien adibide dira: Ada Byron Saria [5] teknologian nabarmentzen diren emakumeentzat, egun bere bosgarren edizioan dagoena; INSPIRA STEAM [6] tutoretza proiektua, emakume teknologikoen inguruko erakusketa bat; eta sarean space MujerTekSpace (bloga eta Twitter kontua). Gizarte Zientzien eremuan irakaskuntza espezializatuko programak daude, Genero Ikasketen gaineko aurre-graduako oinarrizko ikastaro derrigorrezkoa; generoko hautazko ikasgai ezberdinak Psikologia, Gizarte Hezkuntza eta Gizarte Laneko graduetan; eta, emakumeen aurkako Indarkerian Esku-hartzea Masterra, azken bost urteetan Espainiako graduondoko programa onenetako bat bezala sailkatua eta Emakume Saria izan zuena 2018 urtean.



[2] Platadorma Interdisciplinar de Género: <https://www.deusto.es/cs/Satellite/deustoresearch/es/inicio/plataformas-interdisciplinarias-de-investigacion/deusto-gender>

[3] GEARING Roles: <https://gearingroles.eu/>

[4] Responsabilidad Social Universitaria: <https://www.deusto.es/cs/Satellite/deusto/es/responsabilidad-social-universitaria/igualdad/igualdad-objetivos-y-lineas-de-accion>

[5] <http://ingenieria.deusto.es/cs/Satellite/ingenieria/es/ada-byron>

[6] <https://inspirasteam.net/>



Mondragon Unibertsitatea

Sortua 1997 urtean

Bizkaia eta Gipuzkoa

Ikaslegoa: \approx 5.400

Irakasle ikertzaileak: 740

MONDRAGON UNIBERTSITATEA (MU) 2009 urtetik Berdintasun Taldeak ditu. Urte horretan lehenengo Berdintasun Taldea sortu zen Enpresagintza-Fakultatean, lehenengo Berdintasun Plana diseinatu zuena (2009-2011). 2010 urtean Ingeniaritza Fakultatean sortu zen Berdintasun Taldea eta horrekin batera lehenengo Berdintasun Plana eta 2015 urtean, PLOTINA europar proiektuan parte hartzearen hasierarekin bat eginez Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen Berdintasun Taldea eta MUko Berdintasun Talde orokorra sortu ziren; era berean, Berdintasun Plan komun bat diseinatu zen 2017-2020 epealdirako. Plan horretan diseinatutako jarduerak bost arlo nagusi betetzen dituzte:

GOBERNU ORGANOAK ETA PERTSONA GAKOAK. Arlo honetan baneratzaren diren ekintzen artean dago, sexu banaketaren arabera datu bilketa sistematikoa Genero Berdintasuneko urteko memoria bat elaboratzeko. Memoria hori eta Berdintasun Plana Gizarte Kontseiluan eta fakultate bakoitzeko Koordinazio taldearen egindako aldika egiten diren bileretan aurkezten dira. Gobernu organoak osatzen duten pertsonentzat Genero Ikuspegiaren inguruan prestakuntza ikastaroak antolatu dira. Arlo honetan ere jasotzen da hizkuntza inklusiboaren erabilerearen berrikuspena kanpo eta barne erabilera testu formal guztietan. Horretarako, prestakuntza ikastaro bat antolatu da eta bertara gonbidatu dira komunikazioko materiala hornitzen duten enpresak. Horrela, MUko web gunearen edo katalogoen diseinuaz arduratzen diren enpresak ikastaroa burutu dute. Modu honetan, gizaratean eragin handiago bat sortzea posible izan da, izan ere, enpresa horiek euren zerbitzuak beste erakunde eta enpresa batzuei eskaintzen dietelako. Ikastaroaren laburpen modura, gomendioen gida bat diseinatu da MUko hizkuntzaren erabilera inklusiboarako, Berdintasun Zerbitzuaren web orrian argitaratu den gida.

Beste alde batetik, sexu jazarpenaren edo sexuaren aurkako protokolo baten diseinua Humanitate Fakultatean gauzatu da prozesu parte-hartzaile baten bidez. Bertan parte hartu dute, irakasleak eta ikertzaileak, administrazioak eta zerbitzuak langileak eta ikasleak. Protokoloaren diseinua egin ondoren gainerako fakultateetan dauden protokoloak aurretik berrikusi nahi dira, bermatzeko protokolo bakoitzak erantzuten dituela babesten dien kolektiboen behar errealak. Hortaz gain, autodefentsa feministako ikastaro bat ere eskaini da unibertsitateko emakume guztientzat.



HAUTAKETA, SUSTAPENA ETA TALENTU ATXIKIPEN PROZESUAK. Ingeniaritza Fakultatean Errektore Kontseiluaren hautaketaren araudian burututako aldaketa nabarmentzen da, bertan antzintasun irizpidea ordezkatu da, berdinketa kasuan kontuan hartzen zena gutxien ordezkatzeko den sexuagatik. Aldaketa hau onartua izan zen 2019ko otsailaren 7ko batzar nagusian. Era berean, joera inkontzienteen prestakuntza ikastaro bat eskaini da hautaketa prozesuetan parte hartzen duten pertsona guztientzat eta gomendioen gida bat sortu da, Berdintasun Zerbitzuaren web orrian argitaratua.

Beste alde batetik, lanaren ebaluazio sistema berriaren diseinuan adostu da jardunaldi murrizketak kontuan hartzea irakasleen eta ikertzaileen ekoizpen zientifikoa ebaluatzeko garaian. Horrela, tarte-igoerarako adostu da eskatzea lan-jardunaldiarekiko proportzionala den argitalpen kopuru bat, argitalpen kopuru finko bat eskatu ordez.

Azkenik, erakusketak eta dinamikak antolatu dira world cafe modukoak, hauen helburua emakumeak ahalduztea da, zientzia munduko emakumeak eta inguruko enpresetan lidergo postuak betetzen dituzten emakumeak aurkezten.

LANA ETA BIZITZA PERTSONALA BATERATZEA. Alde batetik, lana eta bizitza bateragarri izateko neurrien informaziorako erreferentzia gune bat sortu da. horrez gain, Ingeniaritza fakultatean berdintasuna eta bateragarritasunaren gaineko inkesta bat burutu da, langileen asetasun maila neurtzeko gai honen inguruan eta neurri berri posibleak ebaluatzeko. Inkesta honen emaitzak Ingeniaritza Fakultateko Koordinazio Orokorreko Taldean aurkeztu dira eta kontuan hartuko dira Berdintasun Plan berria diseinatzerako garaian.

Beste alde batetik, gida bat elaboratu da komunikazioa nola mantendu eta nola erraztu berriz lanera bueltatzea amatasun edo aitatasun baimen batetik datozen pertsonentzat. Gida hori ezagutza arloetako koordinatzaileei eskainiko zaie, egun horren arduradun direnak eta oraindik irizpide argirik ez dituztenak.

IKERKETA: GENERO BERTINTASUNA ETA SEXUA ETA GENEROA ALDAGAIK IKERKETAN BARNERATZEA.

Nabarmentzen dira 4 orduko ikastaro irekia eta 20 orduko online ikastaroa, irakasle eta ikertzaile guztiei eskaini zaiena sexua eta generoa aldagaiak ikerketan txertatzearen inguruan. Ikastaro horiek Capitolina Diaz adituak eman ditu, gai honetan Europar Batasuneko aholkulariak. 4 orduko saiora 26 pertsona bertaratu ziren eta beste 20 pertsonak burutu zuten online ikastaroa. Ikastaro hauek urtero errepikatuko dira eta Doktoradutza Programan barneratuko dira hurrengo berrikuspenean.

Era berean, eta PLOTINA europar proiektuaren esparruan, ikerketa kasu bat garatu da generoak eskuzko tresna elektrikoaren (zulagailuen) diseinuan duen eraginaren inguruan eta hauen diseinuaren eta komunikazioaren eragina genero estereotipo eta roletan.

SEXUA ETA GENEROA ALDAGAIK BARNERATZEA IKASKETA PLANETAN. Sexua eta generoa aldagaiak sartzean ikasketa planetan lehenengo gauzatuko da, gradu eta master ezberdinetan komunak diren zeharkako ikasgai komun bitartez. Horrela adostu da Akademia Batzorde ezberdinetako bileretan. Paralelo, irakasleei zuzendutako prestakuntza ikastaroak eskainiko dira beraien ikasgaietan txertatzen joateko. Hain zuzen ere, Herrera Planean, urtero kontratazio berria egiten zaien pertsonen eskaintzen zaien prestakuntza, 4 orduko prestakuntza saio bat eskaintzen zaie genero ikuspegian eta sexua eta genero aldagaiak txertatzea ikerketan.

GIZON TALDEA. Azkenik, Biteri Ikastetxe Nagusitik Gizon Taldea jarri da abian, gizarteari irekia. Talde honek Ritxar Bacete adituarekin lankidetzan hitzaldiak antolatzen ditu maskulinitate berrien inguruan eta aldika bilerak antolatzen ditu gizonei laguntzeko berdintasunaren bidean borrokan jarraitzeko.




Euskal Herriko Unibertsitatea

Sortua 1980 urtean

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa

Ikasletoa: \approx 40.400

Irakasle ikerlariak: 5.709



UPV/EHU 2006 urtetik Berdintasunerako Zuzendaritza du, egun Berrikuntza, Gizarte Konpromisoa eta Kultura Ekintza Errektoreordetzan kokatua dago, eta RUIGEUren parte da, Unibertsitate Bikaintasunerako Genero Berdintasun Unitateen Sarea. 2007 urtean lehenengo diagnostikoa burutu zen eta 2009an UPV/EHUko Berdintasun Batzordea sortu zen. Egun, indarrean dago Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2019-2022).

GENERO INDARKERIAK. Genero indarkerien tratamendua eta prebentzioa Berdintasunerako Zuzendaritzaren lehentasun nagusia da. Azken bi urte eta erdietan unibertsitatean 52 kasu artatu dira, horretarako asistentzia juridikoa, medikua eta psikologikoa eskaintzen da. Ez da beharrezkoa indarkeria egoerak unibertsitatearen eremuan gertatzea zerbitzu hauek erabili ahal izateko. Genero indarkerien aurkako Protokoloa elaboratzean erabilitako metodologia nabarmentzen da, dinamika parte-hartzaileekin hiru kolektiboetan (PDI, AZP eta ikasleak) eta genero indarkerien kasuen Arretarako Batzordea sortzea. Protokoloak bere gain hartzen ditu SGA eta indarkeria homofoboak eta transfoboak. Indarkeria bizi duen pertsonaren konpontzeko eta osatzeko hartutako neurriak izaera ezberdinekoak dira eta pertsona beraren egoera zehatz horretara eta berak behar eta eskatzen duenera egokitzen dira. UPV/EHU hirugarren lekuan dago estatu mailako unibertsitate publikoen ranking batean, artatutako salaketa kopuruari dagokionez, honek adierazten du unibertsitatean diseinatutako eta ezarritako berdintasunaren politiken eraginkortasuna.

Era berean, genero indarkerien prebentzio dimentsioa lantzen da. INDARTU programak gradu ezberdinetako bigarren mailako unibertsitate-ikasleekin ahalduntzea lantzen du, estrategia bezala genero indarkerien prebentziorako eta eremu ezberdinetan genero indarkeria adierazpen potentzialak kudeatzeko tresna espezifikoak elaboratzeko. Emakumeentzat seguruak diren espazio hauetan sexualitateak, indarkeriak eta eskuragarri dauden baliabideak lantzen dira. Sexualitateak lantzerakoan SGA ikuspegia barneratzen da sexualitate eredu hegemonikotik haratago; ildo horretan, maitasun erromantikoaren ereduaren inguruan lan egiten da, pedagogia feministetatik landua.

2018 urtean UPV/EHUko ikertzaile talde batek USV React proiektuan parte hartu zuen eta praktika egokien Gida bat elaboratu zuen sexu-indarkeriak lantzeko europar unibertsitateetan. Talde honek parte hartu zuen UPV/EHUko genero indarkerien aurkako Protokoloaren elaborazioan.

“Emakumeen zenbakizko presentziak ez du esan nahi kolektibo honekiko diskriminazioa deuseztatu denik, rol, balore, jarreraren aldaketetan lan egiten jarraitu behar da, zientzien eta gure pentsamenduen funtzionamendu moduan lan egiten”

Idoia Fernandez,
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren
eta Kulturgintzaren Errektoreordea

LIDERGOA. Irakasle laguntzaileen %76 emakumeak diren bezala, katedradun pertsonen artean %25 baino ez dira emakumeak. Datu hau akademia munduan existitzen den joeraren adibide bat baino besterik ez da. Ildo honetan, ikerketan, irakaskuntzan eta transferentzian erantzukizun lanpostuetara sartzea eta bertan irautea AKEME programak lan egiten duen beste jarduera lerro bat da. 2016 urtetik aurrera bost edizio gauzatu dira eta bertan akademia eremuko 175 emakumek hartu dute parte. Programa honek sustatzen ditu akademia emakume parte hartzaileen auto-lidergoa eta lidergoa eta ahalduz kolektibo baterako laguntza sareak sortzen ditu, akademiako emakumeen sarrera eta permanentzia bultzatzen dituen erantzukizun postuetara. Horrez gain, esperientzia misto bat burutu da, emakume eta gizonen artean, BATERA ekimenaren baitan, 2019ko maiatzean burutua. Esperientzia honen helburua akademia munduko gizonak genero desberdinkerien diagnostikoan inplikatzeko izan da, unibertsitate esparruan eta aurre egiteko irtenbideen proposamenean.

Erantzukizun postuetan dagoen desorekaren beste arrazoietakoa bat da amatasuna eta lanren arteko bateragarritasuna da, doktore-tesia defendatu ondoren akademia emakumeen ibilbide profesionalean bereziki ikus daitekeena. Ondorioz, Akedeme programarekin paralelo, UPV/EHUk bizitza eta lana bateragarri izateko lan egiten du, gida bat du eta bi gurasoentzat amatasun/aitatasunagatik 18 asteko baimena.

FORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA. Unibertsitateak doako online ikastaro multzo bat du, UPV/EHUko irakasleei, administrazio eta zerbitzuetako langileei, eta ikasleei bideratuak; eta ikasleek ikastaroak burutzeagatik 3 kreditu ECTS: Hezikidetzaren alde busti!; Emakume eta Gizonen Berdintasuna; Maskulinitateak. Gizonak eta Berdintasuna: erronkak eta erresistentziak; Hizkuntza Inklusiboa eta Sexu Aniztasuna. Euskaraz eta gaztelaniaz ematen dira. 2018 urtetik 2000 pertsona baino gehiagok eman dute izena.

Bi ikastarotako (Emakume eta Gizonen Berdintasuna; Maskulinitateak. Gizonak eta Berdintasuna: erronkak eta erresistentziak) materialak eta edukiak Emakunderekin batera elaboratu dira (bien arteko hitzarmen baten bidez) eta SGAREN kasuan, unibertsitateko kolektiboarekin kontrastatu dira. Hortaz gain, materialak eta gidak, baita hizkuntza inklusiboa ere ikasleen ongietorri dokumentazioan barneratzen dira.

IKERKETA. Genero ikuspegia barneratzea bultzatzeko hiru sari daude GrAL, MAL eta Doktoradutza Tesietan. Horrez gain, ikerketa proiektuen ematean hizkuntza inklusiboaren erabileraren irizpidea eta ikerketa talde ekitatiboak barneratu dira, eta Generoaren inguruko lana modu positiboan neurtzen da ikerketa gai bezala.

GENERO ETA SEXU ANIZTASUNA. Berdintasun Zuzendaritzak asebeteko ikaslearen aldetik SGA gaiaren inguruko hiru eskaerak:

- Hirugarren lauki bata jartzea barneko dokumentazio guztian binarioak ez diren pertsonentzat. Dagoeneko abian jarri da, eta terminoa kolektiboak berak aukeratu zuen beste aukera batzuen artean, bestea edo trans bezala.

- Komun mistoak / ez binarioak jartzea. Hirugarren komun bat jartzeko edo dagoen errotulazio binarioa aldatzeko neurria 2017 urtean finkatu zen eta abian dago, baina oraindik neurria finkatzea nola izaten ari den ebaluatzeko dago fakultate bakoitzean.

- Irakasleen artean erresistentziak hautematen ziren ikasle trans edo ez binarioak berak nahi zuen izena erabiltzera, jaiotzean jarritakoaren aurrean. 9/2019 legeak 14/2012 Legearen 3 artikulua aldatzen du, sexu identitatearen autodeterminazioaren inguruan Euskadin, orain beharrezkoa ez delarik mediku edo psikiatra diagnostiko bat eta posible eginez aldi baterako dokumentazio ofizial bat, unibertsitateak legez onartu beharrekoa.

“
BEHARREZKOA DA
SENTSIBILIZAZIO FASETIK
ERAIKUNTZA FASERA
PASATZEA
”

Euskal Herriko hiru unibertsitateetan burututako elkarrizketen helburu nagusia unibertsitate bakoitzean gauzatutako praktika egokiak hobeto ezagutzea da. Hala ere, unibertsitate bakoitzaren ezaugarri zehatzetatik haratago doazen leku komunak detektatu dira.



ERRON- KAK ETA AUKE- RAK





SEXU BEREIZKETA


Ibilbide profesionalaren erabakian eragiten duten genero aginduen gainean aztertzen eta lan egiten duten esperientziak jasotzen ditugu, baina ezagutzaren alorrean sexu bereizketa mahaia gainean dago unibertsitate guztietan, baita lidergo eta erantzukidetasun rolen maskulinizazioa.

GIZONEKIN LANA

Genero ikuspegia eta Berdintasuna historian zehar emakumeei zuzendua egon da eta gizonekin egin beharreko lana oraindik egiteko dagoen lana da, nahiz eta maskulinitate berrien eta indarkerien prebentzio lerroan esperientzia positiboak jasotzen ditugun.

IKERKETA ALDARRIKATU

Genero ikuspegia zeharkako moduan edozein ikerketan aplikagarria izatea geroz eta sarriago ematen da, baina Generoa ikerketa arlo bezala unibertsitateetatik kanpo etengabeko mugak izaten ditu. Hau gainditzeko intzidentzia politikoa ezinbestekoa da, konpromiso erreal bat lortzeko.



BERDINTASUN PLANAK MINIMOETATIK HARATAGO

SUPERA europar proiektuak bideak dira sakonagoak diren Berdintasun Planak garatzeko eta Unibertsitatean Berdintasun alorrean burututako lana balioztatzeko.

ERAIKUNTZA PARTE-HARTZAILEA

Jasotako prozesu asko dinamika parte-hartzaile interesgarriak dituzte, bertan material edo protokoloen sorrera instituzioaren, irakasleen eta ikasleen arteko talde-lanetik abiatzen da.

BOLUNTARIOA DEN HORRETATIK INSTITUZIONALA DEN HORRETARA

Urte gutxiko tartean Unibertsitatean Generoa eta GAS lan egiten duten pertsonen baldintzen hobekuntza nabari da. Orain gutxi arte boluntariotza lana zena onespena lortzen ari da, prozesuak automatizatuz eta aurrekontu espezifikoekin.

UNIBERTSITATE ERALDATZAILE
BATEK KONPROMISO ERREAL
BAT ESKATZEN DU ETA
EKINTZA, PROIEKTU ETA
PROZESUEN BIDEZ IRUDI
KORPORATIBO BAT BAINO
ZERBAIT GEHIAGO BILATZEN
DUELA ERAKUTSI

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Borraz, M. (2016). Nace el primer servicio de atención a personas LGTB de una universidad pública en España. Retrieved from https://www.eldiario.es/sociedad/Nace-personas-LGTB-universidad-Espana_o_504299755.html

Buitendijk, S., y Maes, K. (2015). Gendered research and innovation: integrating sex and gender analysis into the research process. Advice paper, 18. Bélgica: LERU. Recuperado de: <http://media.leidenuniv.nl/legacy/leru-paper-gendered-research-and-innovation.pdf>

Campbell, R. (1994). The virtues of feminist empiricism. *Hypatia*, 9, 90-115.

Espinosa-Miñoso, Y. (2014). Una crítica descolonial a la epistemología feminista crítica. *El Cotidiano*, 184, 7-12.

Finlay, B., & Walther, C. (2003). The relation of religious affiliation, service attendance and other factors to homophobic attitudes among university students. *Review of Religious Research*, 44, 370-393.

Herek, G. M. (2003). The psychology of sexual prejudice. In L. D. Garnets & C. C. Kimmel (Eds.) *Psychological perspectives on lesbian, gay and bisexual experiences* (pp. 157-164). New York, NY: Columbia University Press.

Hill Collins, P. (1990) *Black Feminist Thought: Knowledge, Consciousness and the Politics of Empowerment*.

Hinrichs, D. W., & Rosenberg, P. J. (2002). Attitudes toward gay, lesbian, and bisexual persons among heterosexual liberal arts college students. *Journal of Homosexuality*, 43, 61-84.

Hundleby, C. (2007). Feminist empiricism. En N. Hesse-Biber y S. Hesse-Biber (Eds.), *Handbook of feminist research: theory and praxis* (pp. 28-45). Londres: Sage. Maes, K.; Gvozdanovic, J.; Buitendijk, S.; Hallberg, I., y

Mantilleri, B. (2012). Women, research and universities: excellence without gender bias. Bélgica: LERU.

Michell, M.J. (2009). When Consciousness Dawns: Confronting Homophobia with Turkish High School Students. *English Journal*, 98 67-72.

Msibi, T. y Jagessar, V. (2015) 'Restricted freedom: Negotiating same-sex identifications in the residential spaces of a South African university', *Higher Education Research and Development* 34(4): 750-762.

Penna Tosso, M. (2012). Formación del profesorado en la atención a la diversidad afectivo-sexual (Doctoral dissertation, Universidad Complutense de Madrid).

Pettijohn, T. F. y Walzer, A. S. (2008). Reducing Racism, Sexism, and Homophobia in College Students by Completing a Psychology of Prejudice Course. *College Student Journal*, 42, 459-468.

Piedra de la Cuadra, J., Rodríguez Sánchez, A. R., Ries, F., & Ramírez Macías, G. (2013). Homofobia, heterosexismo y educación física: percepciones del alumnado. *Profesorado: Revista de curriculum y formación del profesorado*, 17 (1), 325-338.

Rivera, D. C. L., y de los Santos, P. J. (2016) Representaciones Sociales sobre las personas LGBTI en la universidad: perspectivas del profesorado y alumnado. *Revista de Educación Inclusiva*, 9(3), 231-249

Schiebinger, L. (2014). Gendered innovations: harnessing the creative power of sex and gender analysis to discover new ideas and develop new technologies. *Triple Helix*, 1(1), 1-17.

Universidad Complutense de Madrid, (2017). Guía de prevención y detección de del acoso sexual, acoso sexista y acoso por orientación sexual e identidad o expresión de género.

Vázquez Recio, R. (2014). Investigación, género y ética: una tríada necesaria para el cambio [27 párrafos]. *Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social*



emaús

GIZARTE FUNDAZIOA
FUNDACIÓN SOCIAL